

Manuel Odriozola Otaegi

*Anoeta,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea

Biografia



Anoetako Goikoetxean jaioa, eliza ondoan. Aita anoetarra zuen, eta ama Santa Marinakoa. Herriko kontuekin arduratuta bizi izan da beti. Txikitan eskolan berandu arte ibili zen, zortez, eliz-mutil gisa ibili ere bai. 14 urterekin fabrikan hasi zen lanean Villabonan, eta handik hartu zuen erretiroa. Alkate ere izan zen, 70eko hamarkadan.

Zintak

ANO-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-02-04
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Aita lantegira eta ama azokara

- **Erref:** ANO-002/002
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:00:51. **Bukatu:** 00:03:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Aita Guadalupe papergintza lantegira joaten zen lanera, eta ama, berriz, Tolosara astoz gauzak saltzera. Garai hartan diru gutxi izaten zen. Amonak etxean taloak egiten zituen.</p>

Transkripzioa

Eta, gaiñea, ordun garai hartan, ba familitan zan senide asko, eta [noara] ba diru bat bihar zendun izan bizitzeko eta diru hoi zeatzeko aita papelera jutun zan, Guadalupe, lanea. Eta ama bere astotxua hartu eta Tolosa jutun zan, ba tira, beti zala berdura ematen, zeoze berdura ematen, esnia, zeatikan lau behi eukitzen giñuzen, beste hiru txokor edo, eta harekintxe. Atta fabrika jutun zan lanea, ama jutun zan kalea, ba zeozer ekartzekua egunian bihar zan, ba tira, familiya mantentzeko, eta gu ba [hortxe] hauntza ta honea, ttikik, ba hazi, nola edo hala hazi, ez gaur bezelako zeaik ez zeon ordun ta gutxigoi e! Urdun diruba, gaur balin bada, gaur diruba errexago dabil, urduban diruba, urdun diruba gutxigo zan e! Urdun attak ekartzen zun soldatakin, eta amak beak ba bizimoduba eguneko otorduba iteko eta hoi sortze balin bazan aurrea. Eta gero ba garayak zian, [geo] talua, basarriko zea, ba tira, zan garaiyan e... zer da hoi? ba ogiya ta nola baitzian ordun rasionamenduba, ba talua. Amona ta aittona genduzkan, eta amona gendun talua iten, baiño hola, estraordinaiyua. Ba altxatzen zian txapela bezela harrotzen zian beak indako taluak, enkanbio amak iten zittunak denak geatze zan, patata bezela geatzen zian motel motel motel. Ta beti ba giñan amonak o ezin balin bazun edo, o gaixo bat balin bazun edo hola, ba ordun igual estu-estu ama'e baiño gutxi, urdun ba amak iten zitun taluak ba, ez, ezin, ezin jaten eoten giñen. Urdun... bai, batetik bestea ikusten zan eskuba izan halakua e eta amak beak gaiñea ez zun nahi izaten, zeatikan ikusten zun bea, ez geneukala kariñoik talua iten hasten zan garaiyan eta, beno, amona, berriz, bueno...! Zea, trikitixa jotzeko modun pozakin.

2. Ama egunero Tolosara joaten zen

- **Erref:** ANO-002/003
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:03:09. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Ama egunero Tolosara joaten zen esnea saltzera. Diru harekin jakiak erosten zituen. Umeak eskolara joaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Hala zan, urdun bea egunero-egunero astua hartu eta esne zaliai esnia ematea. Esne zaliak zauden urdun Tolosan, eta urdun esnia partittuz ba etxeako biher zan, zeoze bihar zan, haragiya zala, arraiya zala, edo milla gauza, ezta? ba urdun ba hoi, martxa hoi emateko ba ama jutun zan goizero-goizero.

- Egunero jutun zan, e?

- Bai, egunero-egunero. Eta gu eskola. Ta eskola, ba ahal gendun ta guk suertia bagendun bastante, tira, nola esaten da? poliki edo, jazteko, amak beak zun, ba gogua zun, eta bastante... bastante moldatzen giñan, baiño nola?

3. Besteen terrenotik sagarrak hartzeagatik istiluak izaten ziren

- **Erref:** ANO-002/004
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

<p>Gaztaina asko izaten zen. Jendeak gaztainak saldu, eta diruarekin gauzak erosten zituen. Eztabaida handiak izaten ziren besteen sagarrak biltzen zituztelako.</p>

Transkripzioa

- Eta gero zan garai haitan, garai haitan zan ba gaztaiña, urdun gaztaiña izaten zan asko. Eta urdun, gaiña, zan beste gauz bat, bai, eoten zan jendia gaztain denboran, ba gaztain hoi saltzea emateko, eta horko dirubakin ba zapatak erosi, erropak erosi, eta familiya zuzentzeko ba diruba ekarri. Eta, gaiña, urdun gaztaiña ba izaten zan eguna, honoko "doce de otubre", ba izaten zan ez jendia kalia, mendin, kalia... Gero, jakiña, nola baitzeon estraperluan eta gauza ba zeon hain estutuba, ba, sagarra, sagarra ere garaiya izaten zan, sagar denbora, izaten dalako hoi. Urdun zer? jendia jutun zan aitzikitan jutun zan mendia eta sagarra, ahal

zunak [zer da ta] bolsa bete. O bolsa... beste batzuk, berriz, lotsagabeokuak eta zakua, zakuba. E? zakutxuak bete eta goitikan behera.

- Besten sagarrondotakuak?

- Bai eta gaiña izaten zian oso... oso enkuentro oso zeak, e! alkar, alkar zeatzen'e gertatu gertatu zan kasuak gertatu zian, e,! alkar nola borrokatzen ez baiño diskusiyuak fuertiak e.

- Sagarrangatik.

- Bai, bai jakiña. Jabia. Jabiak eziñ eman eta jabiak "Aizu hi, nundik hartu dittuzu /hartuttuzu/ zuk hoik?" eta hola eta hola eta "Ikusi zaitut nundikan hartu dittuzun!" ta onbre, eztaikit zer bakit zer, harekin, honekin, eta beno "Utz itzatzu sagar hoik!", "Bai zea nola ondik utzi!". Eta gero enfrentamenduba. Bi o hiru hola pixkat gogor prepatu, e? beak zakarkizkinak, gauza zakarkina, eta jabia ba zu, geatzen zan, ba, hantxe, nahi eta ezin, zeatikan... Ta gero ba batzu-batzuk korajia zuen eta, bueno, lotsagabe prepatzen zian eta urdun baserritar gizajua geatzen zan, ba, hitza eman eta gero halazaz ba pasa iten zan, pasa. Baiño enfrentamenduba izan ta [geo].

4. Donostiara tranbiaz gaztainak saltzera

- **Erref:** ANO-002/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Goizean jendea zaldiz jaisten zen tranbia hartzera. Donostiako San Martineko azokara joaten ziren produktuak saltzera. Manuel amari laguntzera joaten zen. Gaztainak saldu ondoren, irabazitako diruarekin amak familiarentzako arropak erosten zituen.</p>

Transkripzioa

- Gero urdun esan dizutena gaztaiña. Urdun gaztaiña tranbia... Donostiko tranbia zan. Goizeroko aurreneko tranbia goizian hemen sei t'erditan, Alkizatikan ikusi in bihar zan, zenbat zaldi etortzen zian. E? Tranbia, berdurakin eta gaztaiñakin eta, ba... hemen betetzen zan, ba, Iruran — Iruran izandu zun parada— ba, hor betetzen zan bagoiya ematen zuna emateko tranbiak, ba, gauzakin. Ba guk geok'e igual ematen giñuzen hiru zaku gaztaiña, baiño haundik, e! hirurogei kilotikan gorako zeak, zakuk, e. Eta urdun, ba, plaza juden ziñan San Martiña, eta zu benga han gaztaiña saltzen.

- Eta hoi mutil kozkorrak iten zenuen?

- Ta mutil kozkorretan, ba, gu amai laguntzea. Ni neoni're amai laguntzea juden nitzan. Urdun eukiko nitun nik, ba, nik ze eukiko nitun? ba hamabi urte o hoi hamahiru urte o inguru hoi. Eta zu amakin amai laguntzen ba

gaztaiñak saltzea. Ta gero ba zapatak ziala, ba erropa, familiako ba... tira, pixkat eusteko ta konpontzeko ta pixkat hola pixkat itxurazko ikusteko, ba tira diru hoi horren zean. Eta zea, zenbat, jakiña hortako jende zintzua ta jendia arreta familiya aurea atera ta bea're txukun atera nahi zulako, ezta? urdun alde hortatik jokatu zun gure gure gure [amak].

5. Eztabaidak aitonarekin baserriko lanak zirela eta

- **Erref:** ANO-002/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:09:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Aitak papeleran lana egiten zuen. Aitona etxean bizi zen eta baserriaz arduratzen zen. Manuelek haserre handiak izaten zituen aitonarekin lana eginarazi nahi izaten ziolako. Orbel bila aitonarekin joaten zenean hark esaten zizkionak orain gogoan ditu.</p>

Transkripzioa

- Ta aitta, berriz, egunero egunero papelera lanea juten zan. Eta gero aittona ta amona genduzkan etxian, eta aittona, oso basarritarra, eta lanian, aittona nahikua izaten zan; nahikua ez, guk`e laguntzen gendun, baiño beti ezetzian, beti ez. Gu urdun... Ta ni neoni ibiltzen nitzan okerreña. Zaharrena ni nitzan senidetan, eta urdun, ba, neekin. Ni kontra jartzen nitzaión, ta burla iten errexa eo, urdun geatze... askotan hasarretu iten giñan. Askotan, e! Ta beak`e oso odol berua. Urdun da... baiño uaindikan ikusi in bihar da hain bizitzako, hain bizitzako zer zan lana eta elizako deboziyua.

- Zuk esan dezunian hasarretu iten ziñatela...

- Hasarratzen giñan...

- Zuk lana in nahi zenulako ta beak uzten ez?

- Beak lana iñarazten zigun, eta urdun lan hortatikan eskapatu, eta joño, nik aspertuta edo, ba beti errez utzi eta urdun haserretu in giñan. Ordea bagoaz igual... urdun basuan orbela, orbela biltzen zan, hostua, eta orbela biltzen zan, ta orbela.

- Azpitako?

- Azpitako, ganauai azpik iteko ta. Urdun, urdun gaur bezela ez zan txirbillakin ta, ordun hoi ez zan sentitzen, hoi ez zan urdun ezertako, zea, sentitzen. Baiño orbelakin ze... gero garua, baiño guk garuakin ez gendun zeaik, baiño orbelakin bai. Ta orbel biltzea juteko. Ta birian igual alkarrekin eskuariak hartu ta zean ta aittonakin, aittonakin ba igual pixkat hura tentatzen, aittona. Jo, behin baiño gehiyotan akordatzen naiz, "Ai, ai, ai, Manuel, Manuel, akordatuko haiz gaur o biyar". Zenbat akordatzen naizen egiya da! Egiya bada e! Eta bai goiz edo bai berandu goguan jasotzen dia, e. Eta atera kontu gure aittona zanak esaten ziguna "Akordatuko haiz, gaur o biyar akordatuko haiz" ta egi haundiya. Uain neoni eoten naiz pensatuta zahardaria zer dan, oain, ta urdunگو gure aittonan esanak ba jartzen zaizkit begitan egik diala.

- Ze esaten zizuen ba?

- Ba esaten ziten "Akordatuko haiz gaur o biyar, zer, nola, bai, hi're zahartzen haizeken garaiyian ikusiko dek" ta igual, bueno, hasarretu ta

berotzen zan; ni berriz´e zirika, ta eskobaria hartu ta tira´re bai e.

- Bai?

- Bai, bai.

6. Aitonak Angelusa errezatzen zuen soroan ari zenean

- **Erref:** ANO-002/007
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:09:52. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak

Laburpena:

<p>Aitonak debozio handia zuen, amonak ere bai. Soroan ari zirenean aitonak lana uzten zuen Angelusa errezatzeko.</p>

Transkripzioa

- Hoi aittona, gure aittona, oso zea zan. Baiño gauz bat, gauz bat zan sorua, errezuako zun oso zea haundiya, deboziyo haundiya. Amonak ze esanikan ez, baiño aittona... Baiño gero badeu aitzakiya. Urdun aittonak... aurrena esango dizut errezuana. Ganaukin soruan artua iteko, eta lurra zeatu bihar, meneatu edo, lurra preparatu bihar, ezta, artua-ta iteko. Eta eguardin hamabitako jotzen zan garaiyan Angelus, Angelus, eta aitzen zun bezain zoriz, ba, ganauk-eta geatu eta harek Angelusa errezatzen zun.

- A bai e?

- Goguan nola hartzen dittuzu gauzak, bai txarrak eta onak, goguan nola hartzen dittuzun /hartzeittuzun/ hoi daukagu garai haitako eta... zure deboziyua, elizako oraziyua.

7. Gaztaina egosiak jaten zituzten artoa zuritu ondoren

- **Erref:** ANO-002/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Zazpi senide ziren eta behin baino gehiagotan gaztainak izaten zituzten afaltzeko. Gauzak asko aldatu dira. Arrazionamendu garaia zen. Artoa izaten zuten eta zuritu egin behar izaten zen. Artoa ganbarara igotzen zuten bertan lehertzeko. Gaztainak eltzetik lapurtu egiten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Eguardiya etortzen zan, eta urdun ikusi nola, zer... zazpi senide giñan, e! eta zazpi... zazpirentzako han kazuela sukaldian´e prepaatu in bihar zian, e! Behin baiño gehiyotan bai e, "zer da" ta "gaztaiña" ta gaztain guk... Gure Goikoetxek gaztaiña asko zun, baso bat zakan zoragarriya, hemendik gertun iten dan, zea bat, baso bat, eta gaztaiña asko ta asko, arbol asko

zian eta gaztaiñ ona. Eta urdun gaztaiña etxian'e gorde iten zan eta gaztaiñak egosi ta jaten giñuzen ba apaltzen 'e, ze, zenbat aldiz patata eta azakin eta, gauza... gaur bezelako... gaur iya jarrita gaude ze jan ez, zer jan ez, baiño urdun, ai ama, urdun bestela zan gauza, e!

- Ordun razionamentuko garaiya.

- Urdun razionamentuko garaiya ya. Ya [zahartzen] ai naiz. Eta urdun, ba, zer? Eta gaztaiña postrian afaldu ta gero, ta gero artua. Garai hartan artua zan. Gaur, gaur ya galdu da hoi're! Baiño artua ya ondu, sekatu, ta heltzen zan garaiyan, ya bildu iten zenun ta ekarri ganbara. Bandiyuak zian urdun basarritan, deitzen zitzaiona.

- Bandiyua?

- Bandiyua. Eta bandiyuan arto hoi botatzen zan ta igual eoten zian hiru, hiru gurdi, bost gurdi igual. Baiño gero illuntzetan afaldu e, eta aitta juten zan, ba... gu juten giñan aitonakin eta amonakin eta, ba arto zuritzia, txurikiña. Bakizu zer dan txurikiña? artua zuritu, eta txurikiña deitzen zitzaion horri, txurikiña.

- Zea e...

- Artua zurittu eta artua bea, buruba, artoburuba aparte. Eta zer? Iten genduna zan, ba gu, ba al dakizu zer? bost mutil. Eta, bueno, harrapatzen genduna jaten gendun. Eta zer? eta hau gertatu zen gure etxian behin baiño gehiyotan, e. Igual artua, saskik betetzen zian garaiyan, bandiyua eta gero ganbara. Eta artua ondo sekatzeko ganbara iyotzen zan, eta saskikin ba jun iten zian bi-hiru lagun, hiru bat saski izaten zian betetzen. Ta jendia're bai. Ba, jendia're igual, ba, sei bat lagun edo, artua zuritzen, eta gero ematen, ganbara. Eta denbora hortan, denbora hortan behera jetsi sukaldea ——eskaillerak zian gure etxian eta gero bandiyua—, behera jetsi, eta gaztaiñak gorde behian egosita. Zeatikan gaztaiñak zurittu, eo ke diga... artua zurittu, ta geo ondorenian gaztaiña jatia. Baiño denok, e. Egositako gaztaiñak. Baiño ze gertatzen zan behin baiño gehiyotan? guk ostu. Guk ostu ta gaztaiñak... Aittak bai palizak eman'e e! zea, jun gea, jun gaztaiña jatea, ta ze? gaztaiña laurdenikan'e ez.

- Danontzako're ez ta...

- Ahal zunak denak gorde, ta gaztaiñ egosiya jaten. Hoi gertatu zan gure etxian behin baiño [gehiyotan].

8. San Juan egunean oilaskoak jaten zituzten

- **Erref:** ANO-002/010
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:18:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Etxean oilaskoak hazten zituzten arto irinarekin egindako masa batekin. Egun berezietan jaten ziren. San Joan egunean jende asko biltzen ziren etxean eta ordurako gordetzen zituzten oilaskoak. Garbantzuak eta arrain zopa ere izaten zituzten. Postrerako arroz-esnea edo sagarrak. Ardoa eta sagardoa ere izaten ziren. Irurako festetara ere familiakoek gonbidatzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Garaiyak hala zian. Garaiyak zian... Oillaskua, oillasko ederrak bai hazi're,

artua botata, zea bota... oria, oria.

- Oria?

- Oria da, ba, artuan iriña, eta horrekin zeatu in, masa in, ogiya iten dan bezela masa in. Eta gero taluak'e, taluak'e hala iten zan, masa in eta ori horrekin talua. Ta hoi oillaskuai baita ematen zitzaien hobeto hazitzeko ta gizentzeko. Ta oillaskuak... urdun ez zan jaten oillaskua etxian! San Juanetan [...] —hau da polita—, San Juanetan festa, eta zer? kanpotikan, ba, gure bandiyuan igual juntatuko giñan... hura hermosura hura zan! Ta gaiñea parentela're bildu, bildu iten zan garai haitan, gaur iten ez dana, jakiña, gaur pisuak-eta dauzkatzu. Dauzkazu... ba pisutan leku gutxi daola, ze igual hogei-hoitabost lagun igual bandiyuan, e.

- Bai, e?

- Parentela [guztiya da]. Festetatikan festeta, ba, biltzen giñen.

- Etxez etxe juten ziñaten auzo [...]?

- Iruran San Migeletan, Santamaiñan "dieciocho julion". Santa Marina, Albizturren dao barriyo bat. Bestia Arriaran'e bai. Eta urdun etxe bakoitzetikan bi o hiru juten zian festa horta, ta gero bazkariya.

- Baiño familikok zian o lagunak?

- Familikok, "no, no, no", familikua. Uain, hola, izan, hola, launen bat, hola, bereziya, bueno. Baiño ez, "en general" familiya familiya. Eta oillaskuak onak hazi urdun jateko. Bestela oillaskoik ez zan zeatzen, e.

- Ze, San Juanetan Anoetan?

- San Juanetan Anotan. Urdun bandiyuan izaten zian [guan], gure bandiyuan, igual hogeitikan gora, bazkaltzen; eta ean, eta jan... bueno! bueno, bueno, zer nola. Garbantzuba ondo zeatuta, "con los sacramentos", garbantzuba jarrita. Bueno, gustoa e! gustoa garai haitan e, jo! Gero oillasko erria, zopa eder bat aurretikan. Bazekin iten arrai zopa, "la casera" deitzen zaiona, basarriko "la casera", oillasko... o ke diga, arrai burubakin eta kendutako zeakin. Uaindikan'e, uaindikan hoi iten da leku gutxitan, e. Baiño urdun zopa hoi zan klasikua. Eta gero, gero, garbantzuba edo hola, ondo, hura're ondo zeatuta, e. Eta gero oillasko erria, bue! Bueno, postria "arroz con leche" edo sagarrak...

- Sagar erriak?

- Eta gero nahiko... ardua, berriz, sobra, sagardua're bai... eta bueno, botak jarri, e! Bersotan-ta jendia beste... beste famili arte bat zan. Gaur akabo.

- Hoi ze iten zan, Anoetan, San Juanetan?

- Hoi Anoetan San Juanetan. Baiño leku gehiyo... Iruran, San Migeletan Iruran. Genduzkan bi tio, bi osaba, ta Irura juten giñan, ba, batea, bestea... partittuta juten giñan Irura. Ta berdin, e. Urdun usadiyua zan familik alkartzeko, ba, giro bat izaten zan. Hoi galdu da gaur.

- Ta Anoetan San Juanetan famili guztik juntatzen zian? auzoko danak? Egun haundiya izate zan ordun...

- Bai, bai, bai, bai, denok, denok. Baiño kanpotik etortzen zian, ba, Iruran genduzkan bi osaba, ta osaba hoi etorriko zan bere emaztiakin; bi ta bi... han bi, bi osaba genduzkan. Geo genduzkan lehengusuk, ta genduzkan, ba, bai Arriaranen, bai Santamaiñan... Ze gure ama Santamaiñakua zan. Atera zazu, ba, anaia [zeukan] han ezkondata, ba, urdun... ba, tira, hola biltzen giñan. Biltzen giñan famili arte oso-oso-osua. Osua! Ta hoi izaten zan, bueno... baiño giro bat... bue! Urdun, oillasku hoik, esan detena, ondo hazi, eta urduako, urduako oillasku hoi jateko. Bestela oillaskua akabo, e! Ez zan... ez zan... gure etxian ez zan [izaten] gehiyo oillaskoik, e.

- Saltzeko're ez?

- Saltzeko're gu ez giñan hola zeatu, ez. Uain gu...

9. Anoetako herri eskolan eta Tolosako akademian

- **Erref:** ANO-002/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Ama Tolosako azokara joaten zen bitartean, amona sukaldeaz arduratzen zen. Sei urte zituela eskolara hasi zen. Beranduago Tolosako akademia batean ibili zen arratsaldez. Herri eskola plazan zegoen.</p>

Transkripzioa

- [...] dedikatu. Bakoitzak gero, hemen dator [...] pixkana-pixkana ari giñan hazitzen, eta gendukan zazpi lagun etxian, [zazpi ume]. Aitta bere martxan, ama bere martxan, eta amona etxian. Ama juten zan Tolosa, ta amona, ba, sukaldian. Zeatikan amak ekartzen zion, ba, hurrungo egunian jarri bihar zana, haragiya zala edo, edo beste zedozer, eta urdun hua amonak zeatzen zun. Eta ama etortzen zan eguardi aldea bere astuakin, bere marmitakin, esnia han zeatuta, Tolosan zeatuta, esne zaliai partittuta. Ta gu hazitzen-hazitzen, eskola. Eskola hasi zan, eskolak badatozti... eskola, eskola juten giñan.

- Zenbat urtekin hasi ziñaten eskolan?

- Ba, eskolaa, ba, txikik, zenbat urte izango zan ba? sei bat urte edo.

- Ta zenbat urte arte eo, hamabi bat o hola?

- Ba gero... E?

- Hamabi bat urte arte o?

- Hamabia. Nik iya... ni bastante gehiyo eondu nitzan, bai; beste anaiyak gutxigo. Baiño nik'e... neoni... ya nik e... partikular juten nitzan, "Academia Almi" a juten nitzan. Tolosan zeon "Academia Almi", ta urdun atsaldetan juten nitzan. Hoi zan hamabi urte... hamabi urteko kontuk dia hoik. Hamabi urte nitula, ni juten nitzan ikastola atsaldetan, ta goizian ibiltzen nitzan, ba eskola jun, herriko eskola jun, edo bestela aittonai laguntzen.

- Herri eskola, nun izaten zan hemen Anoetan, kontzejun o, nun zan?

- Eskola zeon, uain bizi gea herriko... herriko plaza... beno, herriko plaza.

Urdun... herriko etxea deitzen zaiona. Apez etxia eta ayuntamentuba bat in zian. Botata dao uain. Biyak bat bota ta uain urbanizaziyo berrin sartuba dao hoi.

10. Anoetako herri eskolan

- **Erref:** ANO-002/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:22:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

<p>Eskola udaletxeko eraikuntzan zegoen. Sartzerakoan Aita gurea</p>

bueno, nola artikulua edo. Ez dakit nei tokatzen zitzaiten ta “nei hurrungon, zea, nei hau tokatuko zait”. Hoi nola... ez dakit nola esango nizuken.

- Bai, hola, parrafo batetik...

- Bai, bai, parrafu hoi, parrafu hoi noiz nei zein tokatuko zitzaiten kontatuta ematen genun.

- Antzemandu ya.

- Ta hura ikasi, hura ikasi, ta bestiai paso eman. Mekauen sos! Akordatu da, galderak iten hasi zan saltatzen... mekauen! Kontuatu zan de ke tranpa iten gendula! Jesus, Jesus...! Haik zaplaztekuak eta haik gauzak! bai.

Anoetako apaiza zan garai hartan, zan gizon bat, abogadu bihar zun gizona zan, jenyua zun, izan zeiken txarra, sufrittu iten zun honoko ez dakit petxutikan nundikan zun, baiño oso gizona zan apaiña. Zan “una personalidad”. Ondo jazten zun garaiyan... ez dakit zuk dakizun garai batian apaizak nola jazten zian: bere sonbrero ederrakin, bere habitua botata atzea. Ba! Eta juten zan beti jende haundiyakin. Gustatzen zitzaion, ba, jende haundiyakin rozatzia, baiño, baita ere diruba ekarri, baita ere herriyai lagundu. Urdun nik esango dizut garai haitan monagillo, monagillo. Ta urdun monagillua ni, ba... bueno, elizatikan gertun gaude, ta ni, gu bizi giñan etxia —uaiñ’e hala dao, jakiña— Elizaurre deitzen zaion etxia da, eta hor bizi giñan. Eta hortikan, ba, eozein garaitan apaiza etortzen zan ba elizakuak. Elizakuak, bakizu, garai batian, elizakuak zian, ba, apaizakin jauna ematea; heriyotza, o oso bestela gaixo, eta urdun estremuntziyua eta jauna eman, ba igual gaubian edo goizaldea igual, ba, persona hoi gaixo ta gaixo. Eta ni behin baiño gehiyotan, ba, etorri ta leytotikan o atia taka-taka fuerte xamar jo eta leytotikan kaso in aittak. “E, ze?”, “Zu, Don Inixio naiz. Aber Manuel [...] aizu, aber lehen bai lehen, zeatikan zea juteko”, ta jeiki ta segi beai launtzea. Behin baiño gehiyotan, bai, bai. Nik heriyotzak ikusi dtut. Heriyotzak ya handikan [bela], urdu gutxia, hiltzen, baiño heriyotzan estremuntziyua ematen-ta ni eondu naiz behin baiño gehiyotan personai.

- Ta hortako apaizak monagillua ber izaten zun?

- Bai. Ta kanpanilla jotzen zan, eliza... etxe ataria ya aillatzen zetozen garaiyan, nola gendozen, ba, kanpanilla jotzen gendun: „tan, tran, tran“. Ta seriyo-seriyo, apaiza bere zeakin. Ez gaur bezela, e, paisano jantzita, zea, eozein basarritar dan bezela, gaur, zea, jauna ematen, e? urdun bere zeakin, eta bere... apaiza holaxe juten zan, e.

- Eskuk hola jarrita?

- Eskuk holaxe jarri, aurretikan hartuta zeak, bere zea, estutxe bat ematen zuen. Estutxe hoi bere... hoi relijiosuak ibiltzen zun. Han jartzen zan jauna, eta... osea, aproposa. Estutxe hoi aproposa. Hoi hola hartu, holaxe...

- Estremuntziyotako estutxia zan o bestela?

- E?

- Estremuntziyotako bakarrik ibiltzen zan?

- Ez, estremauntziyoik ez balin bazan’e jauna emateko hoi izaten zan. Ta estremauntziyoako beste oliyo santu bat da, hoi izaten zan beste estutxe bat, oliyo santuba ta igurtziya emateko. Ta gero bere errezuak zittun horrek. Eta urdun, ba, hantxe .

- Ta nola izaten zan? Allatzen ziñaten, gurdin eo allatzen ziñaten o nola? zaldiz juten ziñaten o...? hola, abixua pasatzen balin bazizuen, etortzen bazan gauen apaiza, ta aittak abixua ematen bazizun “segi zak harea zea apaizakin ta”...

- Bai, bai, bai, bai, nei aittak iten ziten “[...] Don Inixio etorri dek eta beregana jun hai”.

- Ta urdun nun iyo... ze juten ziñaten zaldiz o gurdin o...?

- A, ez, hemen... bueno, bai. Hemen gu ez... Anoetak ez zun... Anoetak ez

du holako... nola esango det? urruti xamar bai, baiño behintzat zaldiyakin behin ere ez gea egokittu. Uain, herrik badaude zaldiyakin-ta juten zianak, e.

- A! Oiñez juten ziñaten zuek?

- Oiñez, oiñez, oiñez.

- Ta ordun apaiza bere zea...

- Apaiza bere zeakin, bere [mantutxu] hoi hartuta, eta "taka-taka-taka", goizeko urdun, dana dala.

- Ta zu kanpanillakin.

- Ta ni, ni ixilikan, beakin batea aurretikan, eta nere kanpanilla horrekin.

Eta bai, ba, kanpanilla behintzat eskutan. Eta ya eliz ataria eo etxe ataria aillatzen giñan garaiyan, ya nola esango dizut ba nik? ba, igual hoge bat metruan eo, hoita hamar bat metruan eo, kanpanilla jotzen hasten nitzan. Ta urdun bai atiak eta... ta ixilik jendia, e!

- Bai, e?

- Ixilik jendia. Han... bueno! Han ez zan... bakar-bakarra zan iya otoitza... otoitza leku bat etxi hoi, han apaiza sartzan giñana, sartzan zan garaiyan, gu biyok sartzan giñan garaiyan. Ta, jakiña, gaixua zeon ahal zan bezela.

12. Hil zorian zeudenei egiten zitzaizkien otoitzak

- **Erref:** ANO-002/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:29:39. **Bukatu:** 00:30:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Apaiza eta monagiloa hilzorian zegoen norbaitengana iristen zirenean, familia guztia biltzen zen. Apaizak otoitz berezia egiten zuen.</p>

13. Egunez lantegian eta gaez estraperloan

- **Erref:** ANO-002/018
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:33:33. **Bukatu:** 00:35:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

<p>14 urte zituela SACEN lantegian lanean hasi zen. Bertako ingenieroa apaizaren laguna zen. Irurako Isidro-enea errotatik irina eraman behar izaten zion estraperloan. Soldadu joan bitartean han egon zen lanean.</p>

14. Apaizaren laguntzaile soldadutzan

- **Erref:** ANO-002/020
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:36:53. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Soldadu joan zen, eta Santanderren egon zen. Tratantea zen batekin lagun egin zen. Manuel apaizaren asistente bezala ibili zen. Zazpi hilabete pasa zituen etxera itzuli gabe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com